



AKTA SAN PEDRO JAIK 2012 1. FASEA 3. BILERA: HAUR EKITALDIAK			
DATA: 2012.03.15 TOKIA: Kultur Etxea	BILERA: 3	HASIERA: 18.30	BUKAERA: 19.45

DEITUAK:

- San Pedro jaien diseinuan parte-hartu nahiko luken herritar oro.
- Herriko talde eta organismo kultural ezberdinak (konbokatoria zuzena).
- Herrian haur aisialdiaren inguruko organismo ezberdinak: Ttakun,... (konbokatoria zuzena).

BERTARATUAK: 6 pertsona.

GAI ORDENA:

1. Aurkezpena eta ongi etorria: Parte-hartze saileko teknikari eta zinegotzia, eta Gazteria, Festak eta Kirola saileko zinegotzi eta teknikaria.
2. Diseinatutako parte-hartze prozesu osoaren aurkezpen laburra: batik bat, zein bileratan gauden, eta honen helburu nagusiak zein diren azaltzeko.
3. San Pedro jaietan 2012. urtean haur ekitaldiak antolatzeko dagoen aurrekontuaren inguruko berri ematea.
4. Hurrei zuzendutako ekintza hauekin jaietako egitarauetan bete beharreko tarteen proposamenaren aurkezpena.
5. Herriko taldeak antolatzeko prest leudeken ekintzen proposamen bilketa.
6. Proposamen bilketa. Parte-hartze sailak dinamizatu eta koordinatuko du hau.
7. Bestelako aportazioak.
8. Hurrengo bilerarako gonbita (bigarren fasea eta ostiralekoa), eta amaiera.

BILERAREN HASIERA ETA AURKEZPENA:

Bileraren hasiera eta aurkezpena aurrez planifikatu gisara egin dira. Jaietako aurrekontuaren inguruko datuak eta lehengo urteko jai egitarauaren nondik-norakoak aurkeztu dira lehenik. Haur eta gazteei eskainiriko ekintzen inguruko bilera espezifikoa izanik hau, laburpen gisara, orokorrean haurrentzako hiru ikuskizun egin zirela, egunero herriko plazaren batean haur parke bat izan zela, eta Ttakunek hainbat ekintza (makarronada, kalejira,...) antolatu zituela azaldu da.

Azalpen guzti hauen ostean, parte-hartze prozesua martxan jarri da. Lehenik, bakoitzari bere ideiak eta proposamenak bakarka lantzeko eskatu zaio. Sei pertsona soilik egonda bilera ordea, proposamen guztiak zuzenean komunean jarri ditugu (aurreplanifikaturiko parte-hartze dinamikan lehenik talde txikiak egitea, eta ostean, hauen proposamenak foro orokorrera ekartzea proposatzen bazen ere).

BILERATIK JASOTAKO PROPOSAMENAK:

Proposamen orokorrak
<p>TXOTXONGILOAK:</p> <ul style="list-style-type: none">- Beste batzuetan herrira txotxongiloak etorri izan direnean, arrakasta handia izan dute.- Kalean izan beharko luke, horrela jende gehiago gerturatzeko.
<p>PROGRAMAZIOA: PILOTA LOIDI-BARRENEKO FRONTOIAN (INTZA pilota elkarte): proposamena da:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ekainak 29 ostirala (11.30): jubenil eta seniorren partidak (1. dibisioa). Ostean, beteranoen partida, pilota bigunekin. Lehengo urtean arrakasta izan zuen, bost bikote atera ziren.- Ekainak 30 (11.00): haurren partidak. <p>Pilota partida hauek antolatzearen helburu nagusia gazteak pilotan jolastera bultzatzea da.</p>
<p>HAUR DANBORRADA:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ibilbidea lehengo urtean haur txikientzat oso luzea izan zen. Motzagoa izatea proposatzen da.- Danborrada zuzentzen urtero berberak ateratzen dira. Agian, haurren batek hartzea postu hori polita litzateke.
<p>MAKARRONADA – BUSTI BLAI (TTAKUN):</p> <ul style="list-style-type: none">- Aurten ere errepikatzea proposatu. EKAINAK 28.- Makarronadaren inguruan baina beste proposamen bat egin nahi dute. Oraindik definitu gabe dago.- Txupinazoa arratsalde balitz hobe: horrela busti-blaitik haurrekin jaitsiko lirateke, eta txupinazora eramane.- Haur batzuen gurasoak ere gerturatu ohi dira Atsobakarrera, eta bertan bazkaldu.
<p>ABIBA DISKO JAIA gartzetxoentzat errepikatzea. Edozein egunetan.</p>

HAUR PARKEAK:

- Beroa egiten badu, arratsaldez batez ere, izugarri berotzen dira puzgarriak.
- 16.00etan hasi beharrea, beranduxeago hastea proposatzen dute: 18.00etatik aurrera, adibidez.
- Animagic-ek antolatutako haur parkea (kotxeekin,...) berriro etortzea proposatzen da.

GAZTETXOENTZAT FUTBOL PARTIDA BAT, edo kirol eskaintzaren bat antolatzea proposatzen da.

- Aurreko batean ere 10-16 adin tarterako oso eskaintza gutxi egon izan dela festetan aipatu da.
- Horrelako planteamenduren bat egoki ikusten da.

KOLTXONETAN, JUMPING-A, GOMING-A,...

TAILERRAK HAURRENTZAT:

- Eskulanak, kareta, artisautza, bitxigintza,... lantzeko tailerrak oso egokiak lirateke.
- EGUNERO egon beharko lirateke, herriko plaza edo toki ezberdinetan.
- Aurren psikomotrizitatea lantzeko gainera oso egokiak dira.

KARAOKEA edo IPUIN KONTAKETA, ANTZERKI TAILERRAK,... antolatzea.

- 10-15 adin tarteko haurren gabezia horiek betetzeko egokiak lirateke hauek ere adibidez.
- Koreografiak,.. egitea, adibidez, oso gustoko dute adin tarte horretako gaztetxoek.

TXOKOLATADA bat haurrentzako: beste herri batzuetan egiten den bezela, adibidez, Alkateak eman dezala. Gurasoak prest leudeke laguntzeko.

ELBARRITUEK kirol erakustaldi bat egin dezatela.

ONCE-koek ere itsuentzako jolasak,... antolatu ohi dituzte. Aukera polita litzateke haurrak animatzen badira eta parte-hartzen badute.

HAUR TXIKI-TXIKIENTZAT ZEZENAK, ENTZIERROA: gezurretazkoak, noski. Oso gustoko omen dituzte (txokoetako esperientzia).

APAR-FESTA bat.

- 3-7 adin tarteko haurrak gurasoekin sartu beharko lukete (behartuta).
- Edo bestela bi txandatan egin.

HAUR DANBORRADA arratsaldera pasatzea.

- Guraso bat baino gehiagok eskatu izan omen du.
- Goizez egiten bada, egun beren PINTXO-POTEO BAT ANTOLATZEA. OSTALARIEN ELKARTEAN komentatuko dute.

Edota pintxo-poteoa ostegunean, txupina girotzeko garaian egin daiteke.

Proposamen orokorrakoak:

GURASOEN INPLIKAZIOA BEHARREZKOA DA.

ADIN EZBERDINETAKO haurrentzako eskaintzak ONDO BEREIZTU beharko lirateke, bestela txikiak handixeagoek jan egiten dituzte eta.

Haurrentzat antolatutako ekintzak HAIEN ARTEAN EZ DAITEZELA SOLAPATU.

9-15 ADIN TARTEA GEHIAGO ZAINDU BEHARKO LITZATEKE:
proposamenak (Ttakunek beste urteren batean ere aurkeztuak): TAILERRAK
EGUNERO: hankapaloak, malabareak, bitxigintza tailerrak, birziklapena, kuadrilen arteko pista jolasak,...

HAURRENTZAKO KALE IKUSKIZUNAK: 3 badaude aurten ere, zaindu egin beharko litzateke zein adin tarterako zuzenduak diren (4-7 // 7-9 // 9-12-15).

Beste bilera batzuetan irtendako musikari dagozkion proposamenak

- **HAUR ETA GAZTE EKITALDIAK:** Herriko gaztetxoek parte-hartzea sustatzeko, adibidez, flash-mob bat antolatzea haurrentzat.
- **HAUR ETA GAZTE EKITALDIAK:** karaoke bat antolatzea haurrentzat.